

Aldudeko eta Luzaideko paperak eta gutunak, euskaraz idatziak

Orreaga Ibarra Murillo*

Resumen: *Papeles y cartas de Luzaide y Aldude, escritas en euskera.* En este artículo resumimos y glosamos varias cartas y notas encontradas en dos sitios. Una de ellas procede de Mezkiritz, y está fechada en Aldude, es un recibí escrito a finales del siglo XIX. Las siguientes proceden de Valcarlos, son más recientes, y nos hablan de la relación con parientes de América y Francia. Las dos son ejemplos escritos del euskera de Baja Navarra.

Palabras clave: Valcarlos, Aldude, cartas, euskera escrito.

Abstract: *Some letters found in Valcarlos and Aldude, written in Basque.* In this article we gloss and summarise some letters found in two places. The first one is from Mezkiritz, and it's written in Aldude. It is a receipt written at the end of the XIXth century. The rest of letters are more recent and they deal with the relationship between people from Valcarlos and their relatives from either the USA or France. Both of them constitute some scarce illustrations of written Basque in the Low-navarrese area

Keywords: Luzaide, Aldude, letters, written Basque

Laburpena: *Aldudeko eta Luzaideko paperak eta gutunak euskaraz idatziak.* Artikulu honetan bi tokitako paperak eta gutunak ekarri ditugu eta biak iruzkindu ditugu. Lehena Mezkiritzen aurkiturikoa da, baina Alduden idatzitakoa eta XIX. mende bukaerakoa da; errezibo bat da. Gainerakoak Luzaiden eriden genituen eta berriagoak dira; hauen bidez Estatu Batuetan eta Frantzia dauden ahaiden harremanaz mintzo dira. Biak dira euskaraz idatziriko dokumentu urrietako batzuk.

Hitz gakoak: Luzaide, Aldude, eskutizak, euskara idatzia.


0. Sarrera

Artikulu honetan bi tokitako paperak eta gutunak ekarri ditugu eta biak iruzkinduko ditugu. Lehena Mezkiritzen aurkiturikoa da, baina Alduden idatzitakoa. Gainerakoak Luzaidekoak dira eta hurrengo atalean iruzkinduko ditugu.

Erran bezala, lehena Mezkirizko nire sortetxean, Apesuinen aurkituriko papera da, gure etxeko eskrituren artean atera zen bertze idazki batzuen artean. Euskaraz idatziriko paper solte bakarra zen hau eta nahiko argia irakurtzeko, gainerakoak, erdaraz eginak zeuden.

* Lan hau "Núcleos innovadores en los dialectos vascos" izena duen MEC-eko proiektuaren barruan kokatzen da.

1. Lehenengo papera, Aldudeko oharra



Aldudes, le 19 Avril 1893

Yoaneseneco andereac éguinaraztendaut lettra hau ôrai hango 24 untzar kobratiac apatioineco Anderarenganic paper hau emaitendacot erresebiterengatic nehor esdeçon eman malzuric bere umec ere yaquinen dütê nola emanac ditin.

Sansinéna
Maria Iriart de ardaiz

[Traducción]

La señora de Yoanesena me manda hacer esta carta ahora, las 24 onzas de allí están cobradas a la señora de Apesui, le doy este papel de recibo, para que nadie le haga daño (no le reclame), sus hijos también sabrán cómo han sido cobradas.

Sansinéna.
Maria Iriart de ardaiz.

1. "MalCurric" C-ren antzeko zeinu ortografikoa da.

1.1. *Aldudeko oharraren iruzkina. Garaia eta testuingurua*

Bistan denez, Juaneseko etxeoandreak agindu zion hau egitea idazten zekien auzoko bati. Errezibu bat da, bertze emakume bati entregatzeko egina, bertan dioenez, etxean semeen atzinean erakusteko egina zen.

Aldudeko etxearen izena *Yoanesena* da, eta ziurrenik etxe hori Urepel herrian kokaturik zegoen, ondoren ageriko diren datuetan oinarrituz. Egilea ez dakigu nor den, baina, dudarik gabe, Antonio Urrutiari, ene birramatxiren aitari egindako errezibua zen hau. Hobeki erranda, haren emazteari. Izan ere, gizon hau ibiltzen zen ‘mandazai’ urte haietan, Nafarroa Behereko eta Mezkitz inguruko herrietan barna, ardoa ekartzen eta bertze elikagaiak garraiatzen zituen handik hona. Hiru urte beranduago, 1884. urtean, Apesui etxea hipotekatu zuen mandazaia zen jabe honek, bai eta soroak ere, Donibane Garaziko bankero batek dirua utzita.

Horrekin batera, bertze paper batzuk baziren, gainerakoak erdaraz idatziak. Etxeko bertze paper baten bidez badugu Juanesenia etxearen berri, idatzirik agertzen baita: “*Juan de Ardaiz de Aldudes, amo de la casa Juanesenia, en Urepel mayo 31 de 1881*”; “*y por no saber firmar hago una cruz*”; “*y el quea recibido porque no sabe firmar ace la señal de la cruz*”.

1.2. *Fonetika-fonologia*

Honatz, grafiaren bidez agertzen diren ezaugarriak: *dûte* idazten da, adierazi nahian ziurrenik Nafarroa Behereko <ü> soinua. Bertzaldetik, *ôrai* hitzak zeinu diakritikoa erakusten du.

Dardarkariei dagokionez, ikusten dugu *malzuric* idatzia; dardarkari anitza biguna bezala ahoskatuko balitz. Luzaiden Salaberrik dioenez (2000: 237) ez da ahoskatzen frantses modura: baina ezaguna da ebakera ubulare hori aski zabaldua dagoela Frantziakoak diren Garaziko gainerateko herrietan.

Aferesiaren adibiderik ez dugu topatu, hori dela eta *eman* agertzen da idatzirik; Luzaiden eta Goinafarrera hegoaldekoan gehienetan, ordea, *man* nagusitzen da. Baigorriren ere badira horrelakoak, Harischelharren arabera, *kusijikusi* eta *purdi*, *kuzi*, *karri*, *man*, *mazteki* eta antzekoak topatu zituen. Sinkopa adibideak badira, baina, erregela ez da sistematikoki betetzen.

Hasperenketaren seinale datezke gutun honetan dauden *h*-ak, batzuk hasieran eta bertze batzuk bokal artean: *hau*, *nehor*, *hango*. Jakina denez, Baigorriko hizkeran erruz agertzen da fenomeno hau hitz hasieran (*hala*, *hasi*, *heldu*), nola bokal artean: *ahal*, *behar*; hauetaz gain, herskari hasperenduak ere badira.

Bertzaldetik, *-n-z* bukaturiko hitzari, deklinabideko *-go* morfema eransterakoan, *-eko* ateratzen da. *Apotsoineko* agertzen baita idatzirik.

Azkenik egileari buruz bi hitz: eskutitzean agertzen da *Yoaneseco anderea*. Bertzaldetik, *casa Juanesenia* agertzen da etxe berari erreferentzia eginez, gure etxeko bertze dokumentu batzuetan “*Juan de Ardaiz de Aldudes, amo de la casa Juanesenia, en Urepel, mayo 31 de 1881*”.

Eta, gutunaren sinaduran, ordea, *Sansinena* ageri da; abizen hau Urepelgoa da, beraz, uste dugu gutuna idatzi zuenak <Sansinena> etxeko jabeak ziurrenik, bere izenarekin sinatu zuela, Eta Yoaneseko anderearen partez idatzi zuela. Ohar honen bidez argi gelditzen da Joaneseneko jabeak ez zekiela idazten, eta horregatik bertze batek burutu behar izan zuela lantxo hau. Bide batez, bi etxe-izen desberdin ageri dira; zaila baita *Yuanesenia* eta *Sansinena* izen beraren bi aldaera izatea, arestian emandako arraoziengatik.

1.3. Morfologia

Izen morfologian honako ezaugarriak suertatzen dira azpimarragarri.

Ergatiboari dagokioenez, pluralean *-ek* morfema dugu Baigorri guztian. Zuazok eta gainerakoek dioten bezala, *-ek* da ergatibo pluraleko aldaera, hemen ere hala islatzen da: *bere umec ere yaquinen dûté*. Baina, singularrean ergatiboa falta da honako esaldian: *Nehor esdeçon eman malzuric* forma ageri baita.

Jakina denez, *Nehor* tankerako izenordainak dira erabilienak Baigorriko eremu osoan eta baita Nafarrerazko hainbat hizkeratan ere. Gisa berean, ergatiboari dagokioenez, morfema hau beharrezkoa den kasu batean ez da agertzen: *Nehor (sic) esdeçon eman malzuric*, beraz, idazkeraren akatsa dateke.

Deklinabide kasuekin segituz, *-ganik* morfema da ablatiboan erabiltzen dena, *gandik*-en ordeztuz, eremu honetan nagusi dena. *Erresebiterengatic* 'erreztibuz gisa' erranahia du, *-gatic* morfema kausatiboarekin.

1.4. Hiztegia

Bi hitz suertatzen dira aipagarri:

Untsa: gaztelaniazako 'onza'-ren ordaina da, garai horretako txanpona.

Apotsoi: hau da nire Mezquirizko etxearen izena, *Apesui*, *Aputsui*, *Apusoi* ahoskatua.

Letra: bistan denez, edozein paperari egiten dio erreferentzia. Ondoko gutunetan, *letra* hitzak 'gutun' adierazten du.

1.5. Aditza

Jakina denez, aditz izenetan ohitura adierazteko, *-iten* aldaera usadiozkoa da Lapurdiko eta Nafar Behereko hizkeretan. Aditzoina *-o* edo *-n* duten aditz batzuekin erabili ohi da. Hori dela eta, testu honetan ere *emaiten* dugu.

Nork-nori-nor orainaldiko bigarren pertsona pluralean *ditin* dugu, *-n* emakumearen morfemarekin. Honek erakusten digu hika formak bizitasuna zuela eta gainera, emakumearen aldaerarekin, eta hori azpimarragarria suertatzen da.

Aditzean, *daut* agertzen da *-au-* erroarekin Nork-Nori-Nor 1.pertsonaren forman (= dit). Bistan da hau ez dela Mezquirizko aldaera, herri honetako adizkia 'dire' baita, 'dit'-en ordeztuz.

Bertzetik, *-ako* da datiboaren morfema nork-nork saileko hirugarren pertsona singularreko adizkietan. Hori dela eta, *dakot* aditz laguntzailea dugu, Nork-nork-nork formaren *-ako-* erroa erakutsiz. Artzibar, Erroibar, Auritz eta Baigorriko hizkeran erabat ohikoa dena. Gisa berean, oso arruntak dira *dakozu* eta horrelakoak.

Partizipioa *+a* egitura *-ia* (*kobratia*) arrunta da: *kobratia direla* ekialdeko eremuan.


Aginteraren nork-nork-nork forman *-i-* erroa falta da; hori dela eta, *esdeçon* forma dugu. Bertzaldetik, aditz oina erabiltzen da, *igor berri unak*, eta ez aditz partizipioa. Horrelako formak ohikoak dira Aldudeko hizkeran, adibidez, Lacombe (1971-72) bilduriko ipuinetan: *jauna etzítela kexa; ken bedi taula hori hortik uai!*


Etorkizuna adierazteko Luzaiden eta goinafarreraz *-en* morfema da ohikoena, eta baita behe nafarreraz ere. Testu honetan *yaquinen* dugu. Horixe da nagusi nafarreraz eta baita Baigorriko hizkeran ere. Bokalarreko sudurkaria galtzen da, *-ain* bukaera eginenez: *errain, juain, jain, ermain*

2. Luzaideko eskutitzak

2.1. Luzaideko lehen gutuna

Gutun solte hauek, baserri abandonatu batean aurkiturikoak, Luzaideko *Auntsaina* etxeakoak ziren, etxeoko jabeari idatzirikoak, batzuk erdaraz eta bertze batzuk euskaraz. Batzuk Eureka hiritik, Californiatik igorriak eta bertze batzuk Parisetik. Dena den, euskarazkoak bertzerik ez dugu iruzkinduko.





anta badut eparria ardién.
Huntan uzten zitut.
Goraintziac humekainekot.
Catrin minartuz ginaztic ezdut
egin hin lettrariac. Maria
Jeannec egiten ditut gure lettrac
eta hunec badu egin ahala
sobera lettra egin gabe.
Izan ontza,
Zure coñat betico,
Pili Etcheberry

Box 10 14 (?)
Eureka Nevada
Jan 31.1961

Coñat maitia,

Bi lerro bakarric erraiteco gu denac ontza girela eta agian ziec denac erre hala izaitia lettra hau errezibitziac eta agian luzaz.

Yainco maitiac plazer badu.

Uste du finitu dituan Rufino Martinez en paperac. Jaun igortzen dut chicquia eta azken paperac. Avizatzen ahal duzu. Agian fite yinen da. Egin dut applicaziona Marzoco egin dain.

Hemen urte idorrain manera dugu berriz. Elur guti eta hotza frango. Ez badu egurric egiten fite gaki izain gira berriz.

Dezentian? dira aim (z) ardiac. Bazka² guti dugu eta 10 tunelada artu (sic) badut ekarria ardién.

Huntan uzten zitut. Goraintziac humekaineka. Catrin minartuz ginaztic ezdut egin hin lettrariac. Maria Jeannec egiten ditut³ gure lettrac eta hunec badu egin ahala sobera letra egin gabe.

Izan ontza,

*Zure coñat betico
Pili Etcheberry*

2. *Bazaka* jartzen badu ere, *bazka* dela uste dugu
3. *Ditut* jartzen du, baina, gero azken <t> ezabatzen du.

2.2. Luzaideko bigarren gutuna

Eskutiz hau M. Martin Irozi igorria da,
 Chez N. Anton Dominique

Hurrengo eskutitzean, 1920. urtean idatzia, “Casa Aunzaina” jartzen du. Baina, honetan “Chez...” frantsesez ‘etxea’. Argi ikusten da honekin hiru hizkuntza menperatzen dituela. Ez dakigu nondik igorria den, Frantziako tokiren batetik, Çare (Sara?) tik igorria seguruenik, Iroztarren arreba batek idazten die.

Eskutitz hau, postal bat da frantsesez idatzia; gutunazalaren alde batean “Bonne année” jartzen du:



Carte Postale

Çare

1920 (Guziec urte hun)⁴

Urte hun bat desiratzen dauziet guzier osagarri humanaiqui eta bertze behar tuzien gauza guziequin.

Adios querida hermanita igor berri hunac.

J. Iroz

Adresse: Juanita Iroz/ Casa Aunzaina / Valcarlos/ España/ Navarra.

Euskaraz idatzia dagoen postala emakume batek sinatzen du (J. Iroz), eta ohiko egiturari jarraituz, gaztelania eta Euskara tartekatuz, Eguberriak zoriontzen ditu.

4. Esaldi hau agertzen da behekoz aurrera idatzia.

2.3. *Luzaideko eskutitzen iruzkina*

2.3.1. *Garaia eta testuingurua*

Gutun solte hauek lagun batek emaniko eskutitzak dira, baserri abandonatu batean aurkiturikoak, *Aunchaina* deitutako etxean, Luzaiden, Gainikoleta auzoan. Gehienak bustiak eta zaborren artetik bildu ziren. Hauekin batera, erdaraz idatziriko bertze bazuk aurkitu ditugu, Eureka hiritik, Californiatik igorriak.

Gaztelaniaz idatziriko hauek Bernardo Irozek idatziak dira, Martin Irozen semeak. Bernardok, 1955.urtean, gaztelaniazko bertze gutun batean dioenez, 2.450 ardiekin ari da, artzai lanetan, Eureka. Kontatzen dio zaldiz ibiltzen dela, bi zaldi dituela txandakatzeko, “etxabolan” bazka goxoak prestatzen dituela, eta hainbat hilabete bakarrik pasatzen dituela, elurteei beldurra... etab

Gaztelaniaz idatziriko horiek ez dugu artikulu honetan iruzkindu, baina, esaldiren bat tartekatzen du euskaraz, ehiza garaia oroitzuz, eta toponimoak ageri dira. Aitari horrelaxe erraten dio: “Si se ha curado bien (aita operatua baita berriki) para Octubre creo que estarán cayendo titas por *pence lucheke zoco*”. “Tita’ hauek usoak dira.

Erdaraz idatzia dagoen bertze batean, bertze seme batek (Juanek) begirune handiz idazten dio aitari, eskutatuz familia baten zuzenbidea, pentsatu horiekin elkartzen denean gauzak aldatuko direla, lan hobego bat edo aurkituko duelako. Bi semeen gutunetan argi ikusten da zein herrimina duten eta zenbat gogo herriko berrien izateko, gutik eman baitiete erantzuna. Eskutitza erdaraz dago, baina euskara tartekatzen du nolabaiteko konfidantza estutzeko edo, xuka idatzirik dago. Horrela dio data honetan “Paris 11-10-1951” sinaturiko gutunean:

“Por lo tanto pues, espero que tendrá Ud. La bondad de buscar los medios necesarios para que un día me pueda ver en compañía de ellos. ‘Jende hek atzeman banitza, gainatikoa atzemanen zazkreche, pensatzen dichit comprendituko duchula zer erran nahi duan”

Hurrengo lerrootan, eskutitz hauen bidez agertzen diren ezaugarriak iruzkinduko ditugu. Bietan emakumezkoak dira idazleak, Pili Echeberry eta J. Iroz. Postala ahizpari endako da, “querida hermanita” idazten baitu.

2.3.2. *Fonetika-fonologia*

Koldo Zuazok (1998: 7, 17) nafar-lapurteraren barrenean kokatzen du Luzaideko hizkera, nahiz Garazikoaren antzekoa dela dioen, Bonapartek berriz (1881: 161) Baigorrikoarekin uztartu zuen.

Bokal hersketa badago, bereziki *-e-z* bukatzearekoan eta *-a* eransten zaionean. Goranzko diptongo formak usaiakoak dira Luzaiden, Aezkoan eta Erroibarren bezala: *izaitia, errebitzian, maitiac, izaitia*. Bertzaldetik, *Ai > i* diptongoaren murrizketa ohikoa ageri da: *zitut*.

Sudurkariaren ondoan *o>u* bihurtzea sudurkaria baten aurrean arrunta da. Baita bertze inguruneetan ere: *arto>artu* agertzen baita idatzirik: *10 tunelada artu*.

Jakina denez, hasperenketa da Luzaideko euskara Garazikoarekin lotzen duena, eta hegoaldeetik bereizten duen ezaugarririk garrantzitsunetarikoa. Honek elkartzen du

Luzaidko hizkera iparraldekoarekin; nolana delare ere Luzaidko euskarak galdu du hasperenketa ozenen ondoan, eta herskari hasperenduak ere galdu ditu.

Luzaidko eskutitz hauetan erakusle eta izenordeetan ageri da: *urte hun, huntan, hunec, hau*. Bai eta bertze testuinguruetan ere, hitz hasieran: *hotza, humekaineka*, eta bokal artean ere: *ahala, behar*. Gutun hauetan, “on” izenondoa *hun* idatzirik agertzen da bi adibide hauetan: *osagarri hunbanaiqui, berri hunac*. Ez dakigu aspirazioa egiten zen edo akats ortografikoa den, erakuslearekin nahastegatik. Nolanahi delare ere, egun gibelean doan fenomeno da; horrela diosku Santaziliak (2009: 245) berriki argitaturiko artikulu batean: “Baliteke gazteek ere ahoskatzea, baina dudarik gabe, galbidean dago helduen artean, eta galdua gazteen artean, testuinguru fonologiko ohikoetan ere”.

Sudurkarien sailean, *-on*-ez bukatutako formak, erdal maileguetan agertzen dira: *applicaciona*. Bertzaldetik *-ng* taldea agertzen da *frango* hitzean: *hotza frango*.

Ohikoa den bezala, errotazismoan, *-rr-* fonema aukeratzen da (erran, erraiteco), *-s-* ren ordean. Bertzaldetik, uste dugu, dardarkariaren soinu ubularea adierazten delare idazkera honetan: *erre* agertzen baita, dardarkari bikoitzez.

Azkenik, Goi-Nafarreran bezala, *-a* organikoaren faltaren adibideak badira: *coñat* (goinatua) adibidean.

2.3.3. Morfologia

Aditz izenetako sudurkariz bukatzen diren ohiturazko adizkietan *-iten* aldaera ageri da, Baigorriko hizkeran eta baita Luzaidko aldaeran ere. Testu honetan honako adibi-deak topatzen ditugu: *erraiteco, izaitia...*

Deklinabidea delare eta, *-er* osagarria da datiboko pluraleko aldaera (orok. *-ei*), ekialde osoan erabiltzen da. Isoglosa barruan da, beraz: *desiratzen dauziet guzier*.

Izenordeen artean *ziek* izenordean azpimarratu behar da, *zuek*-en ordean, horrela erraten da gaur egun Luzaiden, nahiz badakigun lehen *ziik* erabiltzen zela, Bonapartek bildu zuenez, eta gero, Donibane-Garaziren eraginez, *ziek* bihurtu zen. Bestalde, 1. graduko erakusle plurala *hek* da.

Kasu destinatiboan, genitiboaren *-en* morfema agertzen da, destinatibo zentzuarekin: *10 tunelada artu badut ekarria ardien*. Genitibo zaharra da hau, arkaismoa eta eronkariaren ezaugarria zen, bertzeak bertze.

Bertzaldetik, *-aren* genitiboaren morfema *-ain* bilakatu da: *idorrain manera*. Hegoaldeko Goinafarreran bezala. Azkenik, instrumentala erabiltzen da, *Luzaz* hitzean, ‘luzaroan’ edo adieraziz. Eta *dezentian* inesibo morfemarekin, ‘dezente’ erranahairekin.

2.3.4. Aditz morfologia

Lapurteraz eta Luzaidko euskarazko jardunean erabatekoa da *izan*-en nagusitasuna *egon*-en aldean, eta horrela agertzen da hemen ere: *eta agian ziec denac erre hala izaitia*. Bertzaldetik, Nor adizkian pluraleko 1.pertsonan *gira* dugu, hemen agertzen den bezalaxe: *girela*.

Gisa berean, *edun* aditzaren pluraleko 2.pertsonan, eremu zabal batean *u* -> *i* bilakaera betetzen da. Lapurdiko ekialdean eta euskara nafar gehienean: *duzen* >

duzien aldaera nagusitu da ekialdeko formetan, eta *-i-* bokala nagusitu da *ai > i: zitut* bilakaeran.

Luzaideko euskaran **eradun*-en adizkiak ditugu nor-nori-nork saileko orainaldiko adizki guztietan. Aditzean *-au* taldea dugu nagusi: *desiratzen dauziet* eta horrelakoak ditugu.

Nork aditzen pluralgilea *-t* da, palatalizaziorik gabe: *duzuen > tuzuen* eginez: *behar tuzien gauza guzlequin*. Ezaugarri hau hedatzen da GN hegoaldekoan, Erroibarren eta Esteribarren ere.

Zuketa: Egindako ohar horretan, gaztelaniazko eskutitzaren barruan dagoenetan, ukua erabiltzen da: *pensatzen dichit*. Jakina denez, ekialde osokoa da *zuketa*; zubereraz, NB gehienez, Aturrialdean, Erronkarin eta Zaraitzun ere nagusi da.

Xuketaren eremua murritzagoa da, NB-ko salbuespen nagusietako bat Baigorri da. Luzaideko euskaraz ere erabiltzen da, eta horrela argi gelditzen da eskutitz honetan: “*Jende hek atzeman banitza, gainatikoa atzemanen zazkreche, pensatzen dichit comprendituko duchula zer erran nahi duan*”. Aditz laguntzaileetan xukako paradigmak ez da agertzen *-xu* morfemaren irekiera, alegia, ez da *-xo* bilakatzen; Santaziliak (2009: 246) testigaturiko fenomenoak, ez da gure gutun idatzietan, behintzat, agertzen. Gaztelaniaz idazten duenean ere “Usted” da erabiltzen duen trataera; honenbertzez argi gelditzen da haien artean zegoen harreman mota, hurbiltasuna eta errespetua adierazten zuena.

Luzaideko alegiazko baldintzan protasian **ezan* agertzen da, eta apodasian ahalera: *atzeman banitza, gainatikoa atzemanen zazkreche*. Nafarroako Elkanon ere horrelakoak badira (ik. Salaberri 2000: 246): *jín balái íten ahál lezáke* ‘etorriko balitz egin lezake’.

Goinafarreran ohikoa den bezala, *-ten ahal* egiturarekin egiten da ahaleran: *Avizatzten ahal duzu*. Eta geroaldia egiteko *-en* morfema nagusitzen da GN hegoaldekoan eta BN osoan bezalaxe: *atzemanen, yinen*. Bertzaldetik, *Izanan > izain* bilakera arrunta da: *izain gira*.

Bertzaldetik, nork-nor eta nork-nori-nor sistemak bereizten dira; alegia, *zitut* eta *dizut* biak erabiltzen dira. Ezaugarri honetan urrutiratzen dira hurbileko GN-tik: *Huntan uzten zitut*.

2.3.5. Sintaxia

Uste aditzarekin osaturiko esaldi konpletiboak *-n* morfemarekin egiten dira. Ekialdeko ezaugarria da hau, Baigorri eta Erroibarren ere arrunta da: *Uste du finitu dituan*, GN hegoaldekoan bezala.

Joskeran bada bertze ezaugarri bat azpimarratzeko, eta hain zuzen da *-ki*-ren erabilera aditzari erantsirik: *fite gaki izain gira berriz*. Ohikotasuna adierazten du atzizki honek edota, batzuetan, ohitura.

Jakina denez, *-ki* aditz atzizkia *EH*-ko erdiguneko ezaugarria da, nahiz oso hedatua ez dagoen, nafar lapurtera osoan ez baita nagusitzen. Baigorri aurkitzen da EAEL (239. etnotestuan): *Kaiet [...] atean izanki eta erraiten dio [...]*. *EHHA*-k ere bildu du atzizki hau Baigorri; *ibilki nauk* eta Barandiaranek (1982-83) ere honakoak ekarri zituen: *ostalerra[r]ekin bat egoki omentzen; iratzartu zenean, erloirik ez izaki etxean eta [...], abiatu zen [...]*. Ezaugarri honetan, isoglosatik kanpo dira mendebala, erdialde gehiena, Zuberera, Erronkaria eta Zaraitzuera.

2.3.6. *Lexikoa*

Luzaideko hiztegia, jakina badira frantsesetik hartutako maileguak, nahiz eta erabat integratuak diren. Aspaldikoa da hau, eta Erroibarren ere hala erabiltzen da: *fite* < fr. *Vite, finitu*. Bertzaldetik, erronkarieraz bezala azpimarratu behar da bertze hitz hau: *Osagarri = osasun*.

Gainerako ezaugarriak ekialdeko euskalkiekin konpartitzen ditu, bai eta goinafarrerarekin ere: *ontza, plazer, guri, etxabola, tita*.

Luzaideko gutunetan ingeleseko eragina ikusten da: *egin dut aplikazionia*, ingelesez ‘aplication’, ‘eskaera’ da, eta hori adierazten du, han Californian egiten ari den paperez mintzo da. Bertzaldetik, *chicquia* ‘txekea’ dela uste dugu; alegia, Californiatik Luzaidera dirua igortzen zuen eskutitzarekin batera, ohikoa izan den bezala. Azkenik, *egurrik* forma idatzia agertzen da *elurrik* adierazteko; ez du ematen sistematikoa denik.

Ondorio bezala, erran dezakegu, eskutitz eta paper solte hauek XX.mendeko eremu hauetako hizkeraren isla direla eta horregatik, eta dokumentu idatzi hauek herri hauetako jendearen artean erakusten zuten harremanarengatik, biziki interesgarriak suertatzen direla. Alde batetik, artzainen bizitza, handik dirua igorri beharra eta hango paperteria, dokumentuak lortzeko premia; bertzetik, mandazaien bizitza eta zorrak kitatzeko gogoia, gutitan idazten ziren hauek euskaraz, eta hau da horietako kasu bat.

3. Bibliografia

- BARANDIARAN, J.M. (1982-83): “Materiales para un estudio del pueblo vasco en Urepel”, Año 1948, *AEF* 31, 9-30.
- CAMINO, I. (1998): “Nafarroako euskal hizkerak”, in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 1-21.
- (2004), “Nafarroa Behereko Euskara”, *FLV* 97, 445-486.
- IBARRA, O. (1995): “*Cispamplonés* barietatearen inguruan”, *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 29-1, 267-318
- (2000): “Erroibarko eta Esteribarko hizkeraz”, in *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo (arg.), Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila, 151-175
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2001): “Nafarroa Behereko hiru eskutitz”, *FLV* 95, 89-113.
- (2006), “Luzaideko eta Ondarrolako hiru gutun”, *FLV* 101, 95-108.
- LACOMBE, G. (1971-72): “Notes sur le basque des Aldudes. Noms de maisons, mots et récits populaires”, *AEF* XXIV, 25-44.
- SALABERRI, P. (2000): “Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 221-259.
- SANTAZILIA, E. (2009): “Luzaideko hizkuntz bariazioa”, *FLV* 111, 219-248.
- ZUAZO, K. (1999): “Baigorriko Euskara kokatzeari buruz”, *Lapurdum* 4, 247-277.